

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### KULTURA ETA KIROL SAILA

**33/2020 Foru Araua, otsailaren 6koa, onspena ematen diona Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko enklabe tuki erakundeek sustatutako historia eta arte ondasunak onik zaintzeko eta/edo zaharberritzeko esku hartzeak bultzatzeko dirulaguntzen deialdi publikoari**

Kultura eta Kirol Sailak aurreikusi du 2020ko ekitaldian diruz lagunduko dituela Arabako Lurralde Historikoko tuki erakundeek eta Trebiñuko enklabe tuki erakundeek sustatutako ekimenak, haien xedea bada historia eta arte ondasunak onik zaintzeko eta/edo zaharberritzeko esku hartzeak sustatzea. Hori guztia, ondoko hauetan xedatutakoaren arabera: 6/2019 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko kultura ondareari buruzkoa; uztailaren 11ko 12/2002 Legea, Gaztela eta Leongo kultura ondareari buruzkoa; abenduaren 22ko 8/2004 Legea, 12/2002 Legea aldatzen duena, eta, betiere Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuak xedatutakoaren esparruan, zeinak onspena eman baitzien Kultura eta Kirol Sailak dirulaguntzak esleitzeko oinarri orokorrei.

Horretarako, nahitaezkoa da berriazko esparru bat ezartzea, sailak ematen dituen diru laguntzen xede diren kultura ekimenak arautzeko.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onspena ematea 2020ko ekitaldirako dirulaguntzetarako deialdi publikoari, Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko enklabe tuki erakundeek sustatutako historia eta arte ondasunak onik zaintzeko eta/edo zaharberritzeko esku hartzeak gauzatzea bultzatzeko, zeinak 60.000 euroko zuzkidura izango baitu gehienez. Deialdia, bestalde, Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuak arautuko du (2019ko azaroaren 20ko ALHAOn argitaratu zen, 134 zenbakian, eta haren bidez onspena eman zitzaien norgehiagoka bidez esleitzeko Kultura eta Kirol Sailaren dirulaguntzei aplikatuko zaizkien oinarri arau orokorrei).

Bigarrena. Gastu hau Arabako Foru Aldundiaren 2020ko ekitaldiko gastu aurrekontuaren partida honen kontura egingo da: 70.1.03.75.03.762.90.01 (xedapen erreferentzia:105.423).

Hirugarrena. Zaharberrikuntza Zerbitzuaren proposamena aztertu ondoren emango du organo eskudunak bidezko ebazpena; horretarako hiru hilabete izango ditu, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Gehieneko epea igarota esabidezko ebazpenik ez bada egon, esan nahiko du eskaera ezetsi egin dela.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du. Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatzen duenaren arabera, aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari, hilabeteko epean, egintza hau argitarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edota zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurka egin dakioko bi hilabeteko epean, egintza hau argitarazi eta hurrengo egunetik aurrera, administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bosgarrena. Laguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie eskatzaileei, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 42. eta 43. artikuluetan xedatzen dituen moduetan.

Seigarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratzea.

Gasteiz, 2020ko otsailaren 6a

*Kultura eta Kirol Saileko diputatua*  
ANA M. DEL VAL SANCHO

*Kultura zuzendaria*  
M<sup>a</sup> INMACULADA SÁNCHEZ ARBE

## ERANSKINA

Dirulaguntzetarako deialdia, Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko enklabeiko historia eta arte ondasunak onik zaintzeko eta/edo zaharberritzeko esku hartzeetarako

### Lehenengoa. Deialdiaren xedea

Deialdiaren xedea da dirulaguntzak norgehiagoka bidez esleitzea 2020ko ekitaldirako, Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko enklabeiko toki erakundeek sustatutako historia eta arte ondasunak onik zaintzeko eta/edo zaharberritzeko esku hartzeak gauzatzea bultzatzeko. Arau eta xedapen hauen arabera esleitu dira: maiatzaren 9ko 6/2019 Legea, euskal kultura ondarearena; uztailaren 11ko 12/2002 Legea, Gaztela eta Leongo kultura ondarearena; abenduaren 22ko 8/2004 Legea, 12/2002 Legea aldatzen duena, eta betiere, Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuak xedatutakoaren esparruan, zeinak onespina eman baitzuen Kultura eta Kirol Sailak dirulaguntzak norgehiagoka bidez esleitzea arautzen duten oinarri orokorrei.

### Bigarrena. Aurrekontu egozpena

Dirulaguntzen zenbateko osoak ezin izango du inola ere gainditu horretarako bideratu den zuzkidura, hau da, 60.000,00 euro, eta Arabako Foru Aldundiaren 2020ko ekitaldiko gastu aurrekontuaren "Toki erakundeetako ondasun higikorrek zaharberritzeko dirulaguntza" izeneko 70.1.03.75.03.762.90.01 aurrekontu partidari egotziko zaizkio.

Esleitu beharreko dirulaguntza bakoitzaren kopurua zazpigarren oinarrian hartarako ezarritako ehunekoen aplikaziotik eratortzen dena izango da, eta, edonola ere, ez du gaindituko 40.000 euroko kopurua eskaera bakoitzeko Kultura eta Kirol Sailaren ekarpena ez da izango inbertsioa egin ondoren guztira izan den kostuaren ehuneko 80 baino handiagoa.

Arabako Foru Aldundiak, konplexutasun tekniko berezia zein historia balioa dela-eta, gomen-dagarria denean, kasuan kasuko proiektuak idatzi ahal izango ditu bere zerbitzu teknikoaren bidez.

### Hirugarrena. Erakunde onuradunak eta betebeharrak

1. Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko enklabeiko udalak, kuadrillak eta bestelako toki erakundeak izan daitezke erakunde onuradunak. Horretarako, diruz laguntzeko diren ekintzen sustatzaile moduan jardun behar dute.

Deialditik kanpo geratzen dira Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren hirugarren klausulan jasotzen diren egoeretan dauden erakundeak (Kultura eta Kirol Sailaren dirulaguntzak norgehiagoka bidez esleitzeko oinarri arautzaile orokorrak onetsi zituen).

2. Onik zaintzeko eta zaharberritzerako esku hartzeen kasuan, dirulaguntzaren xede diren arte ondasun horien titular izan beharko da edo, bestela, horiek erabiltzeko eskubidea izan

(kontratua, hitzarmena, usufruktua, etab.), hamar urtez gutxienez deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera.

#### **Laugarrena. Diruz lagundu daitezkeen inbertsioak**

Hauetarako eman ahal izango da dirulaguntza:

1. Historia eta arte ondasunak onik zaintzeko eta/edo zaharberritzerako esku hartzeak, kategoria horretan sartzeko direlarik ondasun higiezinak eta arkitekturari lotutako arte elementuak, bai eta bibliografia eta dokumentuzko ondarea ere, baldin eta Arabako Foru Aldundiaren Zaharberritze zerbitzuak ezarritako esku hartze jarraibide eta irizpideei jarraituz egindako proiektu eta proposamen baten arabera egiten badira.

Aintzat hartuko da, historia eta arte ondasun horiei buruz, hau ere:

a) Edo babes arau berezia izatea, hauexen arabera: maiatzaren 9ko 6/2019 Legea, euskal kultura ondarearena; uztailaren 11ko 12/2002 Legea, Gaztela eta Leongo kultura ondarearena, eta abenduaren 22ko 8/2004 Legea, 12/2002 Legea aldatzen duena.

b) Edo katalogatzeko proposamenen batean, garrantzizko arkitektura multzoren batean edo Arabako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak edo Gaztela eta Leongo Juntak egindako inbentarioren batean jasoak egotea.

c) Edo Gasteizko Elizbarrutiko Monumentuen Katalogoan jasoak egotea.

Ez dira inola ere diruz lagunduko "Auzolan" bidez egiten diren lanak.

Urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, 29.3 artikuluan xedatutakoa betez, diruz laguntzeko den gastuaren zenbatekoak gainditzen baldin baditu Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 19ko 27/2018 Foru Dekretuan ezarritako zenbatekoak, betiere kontuan izanda zer xedatzen duen Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 118.1. artikulua kontratu txikiei buruz (40.000 euro, obra gauzatzearen kostua bada, eta 15.000 euro, ekipo ondasunez hornitzea edo zerbitzuak ematea bada), erakunde onuradunak eskaintza bana eskatu beharko die gutxienez hiru hornitzailei, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa bere gain hartu baino lehenago, salbu eta, diruz laguntzeko diren gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan haiek egin, eman edo hornitzen dituen nahikoa erakunde ez badago edo gastua egin bada dirulaguntza eman baino lehenago.

Aurkeztutako hiru eskaintzak dirulaguntzaren frogagiritan edo, hala badagokio, dirulaguntza eskaeran azaldu beharko dira. Horien artean aukeratzea eraginkortasun eta ekonomia irizpideei jarraituz egingo da eta, aukeratutako enpresa-eskaintza diru aldetik hoberena ez denean, egindako aukera berariaz arrazoitu beharko da memoria batean.

#### **Bosgarrena. Eskaerak aurkeztea**

Eskaerak Kultura eta Kirol Saileko diputatuari bidali behar zaizkio, deialdiaren eranskin gisa argitaratzen den ereduari jarraikiz, eta honela aurkeztu ahalgo dira:

– eskura emanda, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean, edo ituna duten udalen erregistro orokorretan.

– bide elektronikoak erabilia, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez erabil daitezkeen erregistro elektronikoan,

Nolanahi ere, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezartzen duena aplikatuko da.

Eta eskaerarekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Administrazio agiriak:

1. Erakundearen organo eskudunak laguntza programatuak eskatzeko hartutako erabakiaren ziurtagiria.

**b) Berariazko agiriak:**

1. Esku hartzearen xedea azaltzen duen agiria. Bertan, honako hauek agertuko dira:

0.1) Eskatutako dirulaguntzaren xede den historia eta arte ondasunaren deskribapena, baita haren erabilerak eta funtzioak ere, edukiz gero.

0.2) Arte ondasunaren eguneratutako agiri grafikoak eta/edo fotografikoak eta kokapena.

0.3) Proposatutako esku hartzearen proiektu teknikoa eta aurrekontu zehatza. Zaharberrikuntza Zerbitzuak adierazitako irizpideei jarraituz, zerbitzuan bertan daude, egin beharko da proiektua. Proposamenak langileen eta horien titulazioari buruzko informazioa ere ekarri beharko du.

0.4) Arte ondasunaren onik zaintze-zaharberritze lanetan parte hartuko duten pertsonen titulazioa. Zuzenean esku hartuko duten pertsonak kultura ondasunak onik zaintze eta zaharberritzearen arloko titulu ofizial homologatua eduki beharko dute.

0.5) Non esku hartuko den historia eta arte ondasunean (lekuaren deskribapena). Ondasuna aipatu zerbitzuko instalazioetara eraman ahal izango da, Zaharberrikuntza Zerbitzuak beharrezkotzat jotzen badu edo arrazoi teknikoak direla-eta eskatzen badu.

0.6) Lanak egiteko ustez beharko den denbora. Kontuan hartuz dirulaguntzaren xede den kultura ondasuna entregatzeko epea 2020ko abenduaren 18an amaituko dela.

2. Kultura ondasuntzat kalifikatua edo katalogatua delako akreditazioa, edukiz gero.

3. Lanen bideragarritasunari buruzko azterlan ekonomikoa eta finantzaketa plana. Horren barruan, honako hauek sartuta joango dira: erakundearen idazki bat, zeinean konpromisoa hartzen duen eskatutako dirulaguntzarekin aurrekontuaren guztirako zenbatekoa osatzeko behar den dirua jartzeko; eta ziurtapena, adierazten duena dirulaguntzarik edo bestelako laguntzarik eskatu edo lortu denetz (baiezkoan, zenbatekoa adieraziz) beste administrazio edo erakunde batzuetatik, helburu bererako.

4. Arte eta historia ondasunaren jabetza egiaztatzeko agiria edo hura gutxienez hamar urtez erabiltzeko eskubidea egiaztatzen duena, ALHAOn deialdia argitaratzen den datatik aurrera zenbatzen hasita. Azken kasu horretan, dirulaguntzaren xede diren lanak egiteko jabearen baimena jasotzen duen agiria ere aurkeztu beharko da.

Eskaerak ez badituzte betetzen adierazitako baldintzak, Kultura eta Kirol Sailak hamar egun emango ditu akatsak zuzendu edo behar diren agiriak aurkezteko. Hala egin ezean, eskaera artxibatu egingo da eta eskaera bertan behera geratuko da.

Nahitaez zehaztu behar da jakinarazpenetarako egoitza.

**Seigarrena. Aurkezteko epea**

Eskaerak aurkezteko hogeita hamar eguneko epea egongo da deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

**Zazpigarrena. Prozedura bideratzea eta balioespen irizpideak**

Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Saileko Zaharberrikuntza Zerbitzuak izango du prozedura izapidetzeko eskumena.

Diruz laguntzeko moduko aurrekontuak: Zaharberrikuntza Zerbitzuak aztertu eta xehakatu ditu eskaeretan aurkeztutako aurrekontuak, diruz laguntzeko moduko aurrekontua den erabakitzeke, zeinak deialdiaren helburuarekin bat datozen jarduketei zuzenean bideratutako lanen atalak jasoko baititu. Esku hartzeari dagokionez, diruz lagun daitekeen aurrekontuaren guztizkoaren kontzeptuak beste azterlan osagarriak barne hartu ahal izango ditu, esaterako, historia azterlanak, analitikoak, erradiografiak, erreflektografia, infragorriak, etab. eta Zaharberrikuntza Zerbitzuak egokiak edo beharrezkoak diren baloratuko du. Halaber, partida

ez egokiak baztertu edo, hala badagokio, murriztu ahal izango dira, baita gainbaloratutako neurketak edo aurrekontuak ere.

Diruz lagundutako jarduketa guztiek Arabako Foru Aldundiaren aholkularitza jarraituak eskatzen duen zorrotasun metodologikoa eta espezializazio maila izango dute. Aldundiak babes, hobekuntza eta zaharberritze arloko eskumena dauka, hauexen arabera: maiatzaren 9ko 6/2019 Legea, euskal kultura ondarearena, uztailaren 11ko 12/2002 Legea, Gaztela eta Leongo kultura ondarearena, eta abenduaren 22ko 8/2004 Legea, 12/2002 Legea aldatzen duena.

Esku hartzearen garapena urte askotarako planifika daitekeenean, faseak banan-banan justifikatu behar dira, deialdiari egokিতuta, betearazpena batera edo zatika eginda ere.

Proposatutako esku-hartzeen balorazioa ondoko irizpideak kontuan izanda egingo da:

a) Esku hartzearen premia: 35 puntu.

b) Balio historiko eta artistikoa: 30 puntu.

Kontuan hartuko da kultura ondasuna babes araudi batean deklaraturuta egotea; udal edo sektore planeamenduaren babes katalogoetara sartu izana; Arabako Foru Aldundiaren, Eusko Jaurlaritzaren edo Gaztela eta Leongo Juntaren katalogazio proposamenen batean bildu izana; garrantziko arkitektura multzo batekoa izatea, eta ondasuna Aldundiak, Gaztela eta Leongo Juntak edo Gasteizko Gotzaindegiak egindako inbentarioren eta/edo katalogoren batean bildu izana.

c) Kultura esanahia eta interesa: 15 puntu.

Dirulaguntzaren xede den arte ondasuna leku publikoan eta jendeak ikus dezakeen lekuan egotea kontuan hartuko da.

a) Aurkeztutako proiektuaren edo memoria teknikoaren kalitatea: 20 puntu.

Hauek baloratuko dira: agiri teknikoaren kalitatea, proiektua edo memoria proposatutako esku hartzeari egokitzen zaion, metodologia, ezaugarri tekniko eta material egokiak, hau da, ea proposatutako zaharberritzea kultura ondarearen balio eguneraketari egokitzen zaion, aplikatu beharreko araudiek ezarritako irizpideekin eta Arabako Foru Aldundiko Zaharberrikuntza Zerbitzuak zaharberritzeko emandako gidalerroekin eta irizpideekin bat etorritz.

Jarduketa bakoitzean, aurreko irizpideetako puntuazioak batuko dira, eta batura horren emaitza hartuko da kontuan. Horrela lortutako kopuruari zuzenean proportzionala den ehunekoa esleituko zaio, eta eman ahal den gehieneko dirulaguntza, hots, ehuneko 80, emaitzarik onenari emango zaio (91-100). Goitik beherako hurrenkeran, kasu bakoitzean proportzionaliki aplikatzen dira ehunekoak, era honetan:

91 - 100	Ehuneko 80
81 - 90	Ehuneko 72
71 - 80	Ehuneko 68
61 - 70	Ehuneko 64
50 - 60	Ehuneko 60

Hala lortutako ehunekoa kasu bakoitzean diruz lagun daitekeen aurrekontuari aplikatuko zaio. Horrela kalkulatu da "proposatutako dirulaguntza" hau da, jardun bakoitzari dagokion laguntza teorikoa. Behin ezarritako balorazioa eginda sortuko den lehentasun-ordenari jarraituz egingo da, balorazio onena duten eskaerei lehentasuna emanez laguntza horien deialdiko zenbateko globala osatu arte.

Berdinketa gertatuz gero, lehentasuna emango zaio d), a), b) eta c) idatz zatietan puntuaziorik handiena lortu duenari, hurrenez hurren, aurrekontuko esleipena agortu arte.

Gehikuntza horiek beharrezkoak ez badira, gerakinak deialdian kontuan hartu ez den hurrengo eskabidera bideratu ahal izango dira, lehiaketa araubidearen proposamenean lortutako hurrenkeraren arabera eta, betiere, ekonomia aldetik bideragarria bada.

### **Zortzigarrena. Ebazpena**

1. Eskaerak balioespen batzordeak aztertuko ditu. Balioespen batzorde horren lehendakaria Kultura zuzendaria izango da eta honako hauek mahaikide: Zaharberrikuntza Zerbitzuaren burua eta zerbitzu horri atxikitako bi teknikari. Kultura eta Kirol Saileko Idazkaritza Teknikoaren buruak jardungo du idazkari, eta hark hitza izango du, ez, ordea, botorik.

Kultura eta Kirol Sailak, egoki iruditzen zaion kasuetan, datuak edo argibideak eskatu ahal izango ditu aurkeztu diren agiriei buruz; eta, eskaera horiei ez bazaie erantzunik ematen Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak aurreikusitako epeen barruan, gerta liteke espedientea atzeratzea, eta are artxibatzea ere.

Balorazio batzordeak akta egingo du, aurkeztutako eskaerak deialdian ezarritako irizpideen arabera erkatu ondoren, eta bertan, egindako ebaluazioaren emaitza eta eskaeren lehentasun zerrenda zehaztuko da, hala badagokio.

2. Eskatzaileei ez zaie entzunaldirik eskainiko, zeren eta, ebazpena ematean, erakunde eskatzaileek aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino ez dira aintzat hartuko.

3. Zaharberrikuntza Zerbitzuak proposatuta, organo eskudunak bidezko ebazpena emango du deialdia ALHAOn argitaratzen denetik hiru hilabete pasatu baino lehen. Gehienezko epea igarota esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, esan nahiko du eskaera ezetsi egin dela.

4. Dirulaguntza jasoko duten eskaerez eta gainerako eskaera guztien esanbidezko ezestiaz gainera, eskaera guztien zerrenda jaso ahal izango du dirulaguntza emateko ebazpenak; hau da, oinarri arautzaileek erakunde onuradun izateko ezarritako baldintza administratibo eta teknikoak bete arren, deialdiak jasotako kredituaren gehienezko kopurua gainditzeagatik onartu ez diren eskaera guztien zerrenda jaso ahal izango du dirulaguntza emateko ebazpenak, deialdiak jasotako balioespen irizpideen arabera eskaera bakoitzari zenbat puntu eman zaion adierazita.

Kasu horretan, erakunde onuradunen batek dirulaguntzari uko egiten badio, dirulaguntza ematen duen organoak dirulaguntza puntuazio hurrenkerako hurrengo eskatzaileari ematea erabakiko du, beste deialdi bat egin beharrik gabe, baldin eta onuradunetako batek uko egiteagatik nahikoa kreditu askatu bada ezetsitako eskaera bati, gutxienez, aurre egiteko.

5. Dirulaguntza eskaerari baiezkota eman bazaio, ebazpenean datu hauek agertu beharko dira: dirulaguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko modua, laguntzaren xede den programa edo jarduera, aurkeztu beharreko agiriak eta dirulaguntza zer baldintzatan ematen den. Gainera, ebazpenaren berri emango zaie onuradunei, Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 41. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

6. Dirulaguntza eman edo ukatu zaien jakinaraziko zaie eskatzaileei, Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 41. artikuluan eta hurrengoetan xedatutako moduetakoren batean.

7. Ebazpenak amaiera emango dio administrazio bideari eta haren aurka, Administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzietarako epaitegi egokian. Horretarako, bi hilabeteko epea egongo da, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Zuzenean aurka egin ezean, nahi izanez gero, errekurtsua aurkeztu ahal izango da ebazpena eman duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazpena jaso ondorengo egunetik aurrera, Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

**Bederatzigarrena. Dirulaguntza justifikatzea eta ordaintzea**

1. Gastuak zuzen zerrendatu eta justifikatutakoan ordainduko da dirulaguntza.

2. Esku hartzeari ekitea premiazkoa izateagatik harekin nahitaez hasi behar denean, eta Zaharberrikuntza Zerbitzuaren buruak txostena egin ondoren, emandako dirulaguntzaren ehuneko 40, gehienez, alde aurretik edo kontura ordaindu ahal izango da, foru araudian ezarritakoari jarraiki.

3. Aurrerakina, dirulaguntza emateko ebazpenak hala adierazten badu, ebazpena eman den egunetik aurrera ordainduko da.

Gainerakoa, berriz, egindako gastuak behar bezala zerrendatu eta justifikatu ondoren ordainduko da, dena batera, aurreko paragrafoan aipatutako "aurrerakina" kenduz. Guztirako gastuak justifikatzeko agiriak 2020ko abenduaren 18a baino lehen (egun hori barne) aurkeztu beharko dira. Dirulaguntzen justifikazioa, betiere, Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren hamargarren klausulan ezarritakoaren konforme egin beharko da; foru dekretu horren bidez, onespena eman zitzaizen Kultura eta Kirol Sailaren dirulaguntzak norgehiagoka bidez esleitzeko oinarri arautzaile orokorrei.

4. Dirulaguntzen onuradun diren erakundeek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte 2020ko abenduaren 18a baino lehen:

4.1. Diruz lagundutako inbertsio edo inbertsioak egiteagatik izandako gastuen justifikazioa, behar bezala zerrendatuta, hau da, dirulaguntza kalkulatzeko oinarri bezala hartutako gastu aurrekontuaren zenbateko osoaren balio bereko zenbatekoaz, dagozkien fakturak eta merkataritza trafiko juridikoan froga-balio berdina edo administrazio eraginkortasuna duten gainontzeko agiriak aurkeztuz, jatorrizkoak nahiz fotokopia konpultsatuak direla, azken kasu honetan horrela ezarri baldin bada deialdi bakoitzaren oinarrietan. Aitzitik, 500,00 euro baino gehiagoko fakturak aurkeztuz gero, ordaindu egin direla egiaztatu beharko da.

Gastuak justifikatzeko ez da onartuko honako datu hauek argi eta garbi azaltzen ez dituen fakturarik ez ordainagirik:

- Jaulkitzailea, bere izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZA.
- Hartzailea, bere izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZA.
- Gastuaren xedea.
- Data.
- Faktura zenbakia.

Halaber, ez dira onartuko justifikazio gastu gisa PFEZaren konturako atxikipenen gaineko zerga araudia betetzen ez duten fakturak edo ordainagiriak.(PFEZa edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga).

Aurreko paragrafoetan aipatu diren aurkeztu beharreko agiri guztiak jatorrizkoak izan behar dute, edo bestela fotokopia konpultsatuak. Ezin izango da aurkeztu beste batzuekin batera finantzatutako programa edo jardueren gastuen fotokopia konpultsatua. Horrelakoetan, ezinbestekoa izango da jatorrizko gastu agiriak zigilatuta aurkeztea. Jatorrizko fakturekin egiaztatu beharreko gastuei zigilua ezarriko die Zaharberrikuntza Zerbitzuak, adieraziz zein den dirulaguntzak eragiten dion zenbateko zehatza, eta, ondoren, jatorrizko agirien kopiak konpultsatuko dira.

Fakturak ordaindu direla egiaztatzekeo agiriei dagokienez, ordainketaren froga agiri hauek onartuko dira:

- Bankuko jatorrizko ziurtagiria. Bertan ageriko dira, gutxienez, zenbatekoa, data eta ordainketaren edo transferentziaren onuraduna. Ziurtagiri hori izenpetuta aurkeztuko da edo bankuaren zigilua jarrita.

– “Fakturaren jaulkitzaileak sinatutako eta/edo zigilatutako ziurtagiria; bertan agertuko dira faktura zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa data.”

– Posta arruntez jasotako jatorrizko banku laburpenak.

– Kontu korronteen libreten kopia konpultsatua, mugimenduak ageri dituena.

– Posta elektronikoz jasotako banku laburpenak edo transferentzia agindu telematikoak, ordainketa edo transferentzia egin duen bankuaren zigilua jarrita.

– Erosketaren jatorrizko tiketak edo fotokopia konpultsatuak, zenbatekoa ordaindu dela egiaztatzen dutenak (merkataritza gune eta autobideetakoak, bidaia txartelak eta abar), edo jatorrizko fakturak edo fotokopia konpultsatuak, enpresa jaulkitzaileak jarritako zigiluarekin, adieraziz ordainduta daudela.

Ez da onartuko eskudirutan ordaintzea 2020rako indarreko araudian ezartzen den zenbatekoa edo hortik gorakoa (edo horren kontrabalioa atzerriko dirutan).

Aurreko paragrafoan adierazitako zenbatekoa kalkulatzeko, eta ondasunak entregatzea edo zerbitzuak ematea zatika egin bada, batu egingo dira egindako eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak.

Dirulaguntza kalkulatzeko oinarri hartu den gastuen aurrekontu osoa ez bada justifikatzen, dirulaguntza jaitsi egingo da gastu txikienaren proportzioan.

4.2. Diruz lagundutako inbertsioaren edo inbertsioen diru sarrera eta gastuen balantzea.

4.3. Dirulaguntzen Lege Orokorren 31.1 artikulua aplikatuz, onuradunak eskatu izan behar dituen hiru aurrekontuak.

Dirulaguntzak justifikatzean baliabide elektronikoaren, informatikoaren eta telematikoaren erabilera arautzen duen uztailaren 17ko EHA/2261/2007 Aginduan xedatutakoarekin bat etorritik, justifikatzeko modu gisa erabili ahal izango dira faktura elektronikoak.

Faktura elektronikoak aurkeztuz gero, Factura-e motako estandarren arabera izan beharko da haien formatua. Elektronikoki izenpetutako beste zernahi agiri aurkeztu behar izanez gero, onartu egingo dira kofiantzazko zerbitzu elektronikoen eskaintzaileen konfiantzazko zerrendan jasotako ziurtagiriak <http://sede.minetur.gob.es/Prestadores>.

Adierazitako epea igaro eta lehen aipatutako agiriak aurkeztu ez badira, ordainketa kredituak balio gabetu egingo dira, eta “konturako ordainketa” gisa jasotako dirua itzultzeko espedienteari hasiera emango zaio.

Lanen amaiera atzeratzen baldin bada, erakunde onuradunak Kultura eta Kirol Sailari eskatu beharko dio ezarritako epea luzatzeko, betiere egiaztagiria aurkezteko epea bukatu baino lehen; eta hala badagokio, lanak zergatik atzeratu diren justifikatu beharko du.

Dirulaguntza lortzeko aurkeztutako gastuen ordainketa egiaztatu ezean, justifikatu beharreko diru aurrerakin gisa ordainduko da dirulaguntza.

2021ko otsailaren 20an aurkeztuko dira, beranduenik, dirulaguntza justifikatzen duten gastuak ordaindu direla egiaztatzen duten agiriak.

#### **Hamargarrena. Dirulaguntzen bateraezintasuna**

Deialdi honetan emandako dirulaguntzak, alde batera utzita dirulaguntzak emateko oinarri arautzaile orokorrek xedatutakoa, bateragarri izango dira Arabako Foru Aldundiaren beraren beste sail batzuetatik edo horiei eratxikitako organismoetatik jasotako beste edozein dirulaguntza edo laguntzarekin, baldin eta aldeetakoren batek desadostasuna adierazten ez badu eta esku-hartzearen irizpide teknikoak Zaharberrikuntza Zerbitzuak finkatutakoak badira.



Dirulaguntzaren zenbatekoa ezin izango da, inola ere, erakunde onuradunak garatu beharreko inbertsioaren kostua baino gehiago izan, beste laguntza batzuekin zein herri administrazio batzuek edo nazioko zein nazioarteko erakunde pribatu batzuek emandako laguntzekin edo bestelako diru sarrerekin batera.

#### **Hamaikagarrena. Eginbehar osagarriak**

1. Zaharberrikuntza Zerbitzuak egingo du dirulaguntza jaso duten jarduketan jarraipena, eta berak egiaztatuko du ea egokitzen zaizkien beren beregi onartutako proiektuetan, Arabako Foru Aldundiak baimendutako eta diruz lagundutako negozio juridikoetan eta esleipena egiteko onartu zen ebazpenean jasotako xedapenei.

2. Laguntzen esleipendun diren erakundeek Zaharberrikuntza Zerbitzuari jakinarazi beharko diote proiektua edo, hala badagokio, lanak esleitzeko erabakia, ikuska ditzan.

3. Horrez gain, historia eta arkitektura ondarearen defentsa edota azterketarekin lotutako organismo, erakunde edo elkarte publikoei sartzan uzteko beharra onartuko du, eta, baita ere, Arabako Foru Aldundiak halaxe erabakitzen duenean, jende guztiari bertara sartzan uztea, kultur eta arte esangura berezia kontuan izanda, horretarako ezarritako moduan.

4. Egindako zaharberritzea eta proiektuak hedatu eta sustatzeko, Arabako Foru Aldundiak deialdi honen xede izan diren diruz lagundutako arte ondasunen irudia eta ikus-entzunezko agiriak eta agiri idatziak erabili ahal izango ditu.

5. Dirulaguntzen onuradunek argi eta garbi adierazi beharko dute egitarauetan Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailaren laguntza dutela, iragartzeko karteletan, argazkietan nahiz diruz lagundutako proiektua dela eta argitaratzen diren gainerako material grafiko, idatzi zein entzunezkoetan. Dokumentazio horretan erabilitako hizkera eta irudiak ezingo dira sexistak izan eta berdintasunezkoak izango dira eta, gainera, EAEko bi hizkuntza ofizialetan egon beharko dira. Horrez gain, Arabako Foru Aldundiaren Kultura eta Kirol sailaren irudi korporatiboa era egokian erabili beharko da.

6. Arabako Foru Aldundiak diruz lagundutako arte eta historia ondasunen lagapena eskatu ahal izango du, aldi baterako erakusgai jartzeko ezin hobeki egokitutako lekuetan eta horretarako egokiak diren lekuetan, zaintza, segurtasun eta kontserbaziorako neurri egokiak jarrita, eta esku hartutako arte eta historia ondasunen mailegurako beste organismo, erakunde eta partikularren eskaerak ebatziko ditu.

7. Era berean, erakunde onuraduna behartuta dago honako hauek betetzera:

a) "Obrak behar bezala gauzatzeko egin beharrekoak; hori dela eta, obren sustatzailea dela iritziko zaio."

b) Historia eta arkitektura ondarea defendatzeko eta kontrolatzeko organo eskudunak esku hartzeari buruzko txostena eman beharko du lanei ekin aurretik, kasuan kasuko proiektuak, memoria teknikoak edo behin betiko aurrekontuak lantzeko emandako zehaztapenak zorrotz jarraituta.

c) Zaharberrikuntza Zerbitzuaren bitartez, Arabako Foru Aldundiaren Kultura eta Kirol Sailari jakinaraztea lanak gauzatu bitartean gerta daitekeen edozein inguruabar interesgarri. Hori dela eta, hasierako proiektua aldatzen bada, Arabako Foru Aldundiko sail horrek berariazko baimena eman beharko du lanekin jarraitzeko.

d) Arte eta historia ondasuna segurtasun, osasun eta apaindura egoera egokian zaintzeko konpromisoa hartu behar da.

e) Zaharberrikuntza Zerbitzuari jakinaraztea diruz lagundutako arte eta historia ondasunen kokapenaren, beste organismo eta/edo erakunde batera lekualdatzearen eta/edo maileguaren inguruko edozein aldaketaren berri .

8. Arabako Foru Aldundiak egin nahi diren jarduenen ezaugarriei ñabardurak eransteke baldintzak ezarri ahal izango ditu, behartzeko indarrarekikoak, eta erakunde onuradunak, dago-kion dirulaguntza jasotzeko orduan, hitz emango du baldintzak horiek onartuko dituela.

9. Dekretu honen babespeko esku hartze bat gauzatzen ez bada, behar bezala justifikatu gabe zergatik gauzatu ez den, hurrengo dirulaguntza deialdian ezin parte hartzeko penalizazioa ezarri ahal izango da.

#### **Hamabigarrena. Kontserbazio-zaharberritze lanen zuzendaritza fakultatiboa**

1. Dirulaguntzari lotutako kontserbazio-zaharberritze lanen zuzendaritza fakultatiboaz Zaharberrikuntza Zerbitzuko langileak arduratuko dira.

2. Zuzendaritza fakultatiboak kontratatutako enpresari exigituko dio egikaritze materialaz arduratuko den pertsona bat behintzat izenda dezan. Pertsona horrek kultura ondasunen kontserbazio eta zaharberritze arloko titulu homologatua eduki beharko du.

3. Proiektua egiteko kontratatutako enpresak segurtasunaren eta osasunaren koordinazioa gain hartuko du.

4. Arte ondasunaren kontserbazio eta zaharberritze lanak esleitu zaizkien langile teknikoak Zaharberrikuntza Zerbitzuak ezarritako zaharberritze irizpideen aplikazioaz arduratuko dira.

#### **Hamahirugarrena. Arte eta historia ondasunak eskualdatzea**

Erakunde onuradunak, edozein arrazoi dela-eta, erabakitzen badu diruz lagundutako arte eta historia ondasuna saltzea, Arabako Foru Aldundiari eskainiko dio lehenbizi, erabaki dezan erosi ala ez.

Arabako Foru Aldundiak eskuratzea erabakitzen badu, tasazio prezioetik emandako laguntzaren zenbatekoa kenduko da, baita zaharberritzearen zioz arte eta historia ondasunak eskuratu ahal izango duen gainbalioaren zati bat ere. Zati hori Arabako Foru Aldundiak emandako dirulaguntzaren proportzionala izango da.


Arabako Foru Aldundiak arte eta historia ondasuna eskuratu nahi ez badu, berriz, erakunde onuradunak arte ondasuna zaharberritzeko emandako laguntza ordainduko dio, baita aurrerago aipatutako gainbalioaren zati bat ere.

#### **Hamalagarrena. Interpretazioa**

Oinarri hauek interpretatzean zalantzarik sortzen bada, zalantza hori Kultura eta Kirol Sailak ebatziko du.

#### **Hamabosgarrena. Publizitatea**

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da, eta ahaleginak egingo dira hedabideetan ahalik eta zabalkunde handiena izan dezan.

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p><b>Laguntza-eskaera, Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko Enklabeko historia- eta arte-ondasunak zaintzeko eta/edo zaharberritzeko esku-hartzeak finantzatzeko</b></p> <p><b>2020</b></p> <p>Solicitud de ayudas para la financiación de intervenciones de conservación y/o restauración de Bienes Histórico-Artísticos del Territorio Histórico de Álava y Enclave de Treviño</p>
	<p>Kultura eta Kirol Saila      Departamento de Cultura y Deporte</p>

Eskaera zk. ■ N° Solicitud

Eskaera data ■ Fecha Solicitud

(Administrazioak betetzeko ■ A cumplimentar por la Administración)

**ESKATZAILEA ■ SOLICITANTE <sup>(1)</sup>**

<b>Identifikazio agiria ■ Documento identificativo</b> <input type="checkbox"/> IKZ CIF <input type="checkbox"/> NAN DNI <input type="checkbox"/> AIZ NIE <input type="checkbox"/> Besteren bat Otro		<b>Identifikazio zk. ■ N° identificativo</b> <input type="text"/>		<b>Sexua ■ Sexo</b> <input type="checkbox"/> Emakumea Mujer <input type="checkbox"/> Gizona Hombre	
<b>Izena edo sozietatearen izena ■ Nombre o razón social</b> <input type="text"/>		<b>Lehen abizena ■ Primer apellido</b> <input type="text"/>		<b>Bigarren abizena ■ Segundo apellido</b> <input type="text"/>	
<b>Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)</b> <input type="text"/>		<b>Zk. ■ Núm.</b> <input type="text"/>	<b>Letra</b> <input type="text"/>	<b>Eskra. ■ Escal.</b> <input type="text"/>	<b>Solairua ■ Piso</b> <input type="text"/>
<b>Herrialdea ■ País</b> <input type="text"/>	<b>Probintzia ■ Provincia</b> <input type="text"/>	<b>Udalerría ■ Municipio</b> <input type="text"/>		<b>Herria ■ Localidad</b> <input type="text"/>	<b>P. K. ■ C. P.</b> <input type="text"/>
<b>Telefonoa ■ Teléfono</b> <input type="text"/>	<b>Mugikorra ■ Móvil</b> <input type="text"/>	<b>Faxa ■ Fax</b> <input type="text"/>		<b>Posta elektronikoa ■ Correo electrónico</b> <input type="text"/>	

**JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA ■ DOMICILIO A EFECTOS DE NOTIFICACIÓN POSTAL <sup>(2)</sup>**


(Ez da bete behar eskatzailearen datuekin bat egiten badute ■ No rellenar si coincide con los datos de la persona solicitante)

<b>Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)</b> <input type="text"/>		<b>Zk. ■ Núm.</b> <input type="text"/>	<b>Letra</b> <input type="text"/>	<b>Eskra. ■ Escal.</b> <input type="text"/>	<b>Solairua ■ Piso</b> <input type="text"/>
<b>Herrialdea ■ País</b> <input type="text"/>	<b>Probintzia ■ Provincia</b> <input type="text"/>	<b>Udalerría ■ Municipio</b> <input type="text"/>		<b>Herria ■ Localidad</b> <input type="text"/>	<b>P. K. ■ C. P.</b> <input type="text"/>

**LEGEZKO ORDEZKARIA ■ REPRESENTANTE LEGAL**

(Pertsona juridikoentzat nahitaezkoa da ■ Obligatorio para las personas jurídicas)

<b>Identifikazio agiria ■ Documento identificativo</b> <input type="checkbox"/> NAN DNI <input type="checkbox"/> AIZ NIE <input type="checkbox"/> Besteren bat Otro		<b>Identifikazio zk. ■ N° identificativo</b> <input type="text"/>		<b>Sexua ■ Sexo</b> <input type="checkbox"/> Emakumea Mujer <input type="checkbox"/> Gizona Hombre	
<b>Izena ■ Nombre</b> <input type="text"/>		<b>Lehen abizena ■ Primer apellido</b> <input type="text"/>		<b>Bigarren abizena ■ Segundo apellido</b> <input type="text"/>	
<b>Protokolo zk. ■ N° protocolo</b> <input type="text"/>		<b>Data ■ Fecha</b> <input type="text"/>		<b>Notario ■ Notario</b> <input type="text"/>	
<b>Telefonoa ■ Teléfono</b> <input type="text"/>	<b>Mugikorra ■ Móvil</b> <input type="text"/>	<b>Faxa ■ Fax</b> <input type="text"/>		<b>Posta elektronikoa ■ Correo electrónico</b> <input type="text"/>	

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p><b>Laguntza-eskaera, Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko Enklabeko historia- eta arte-ondasunak zaintzeko eta/edo zaharberritzeko esku-hartzeak finantzatzeko</b></p> <p><b>2020</b></p> <p>Solicitud de ayudas para la financiación de intervenciones de conservación y/o restauración de Bienes Histórico-Artísticos del Territorio Histórico de Álava y Enclave de Treviño</p>
	<p>Kultura eta Kirol Saila      Departamento de Cultura y Deporte</p>


**BANKUEN DATUAK ■ DATOS BANCARIOS <sup>(3)</sup>**

(Banku helbideratzearen datuak aldatu badira bete soilik ■ Cumplimentar únicamente en el caso de modificación de los datos de la domiciliación bancaria)

<b>BANKUA ■</b>	
BANCO	
<b>IBAN</b>	<b>SWIFT</b>

*Baimendu egiten dut emandako datuak aurrekontu eta aurrekontu kanpoko burutzapen eragiketak izapidetzeko erabiliak izateko / Doy mi consentimiento para que los datos facilitados sean utilizados para la tramitación de operaciones de ejecución presupuestaria o extrapresupuestaria.*

(FINANTZA ENTITATEAK bete behar du) ■ (A rellenar por la ENTIDAD FINANCIERA)	(ESKATZAILEAK bete behar du) ■ (A rellenar por la persona SOLICITANTE)
<p><b>Finantza entitatearen adostasuna (sinadura eta zigilua) ■</b></p> <p>Conforme entidad financiera (firma y sello)</p> <p>.....(e)ko.....aren.....(e)an</p> <p>En....., a..... de..... de.....</p> <p><b>Finantza erakundeak ZIURTATZEN du lehen adierazitako banku kontua "ESKATZAILEA" atalean ageri den pertsona fisiko edo juridiko interesdunaren izenean eta IFZarekin dagoela irekita, eta pertsona interesdun hori kontuaren titular gisa ageri dela</b></p> <p>La entidad financiera CERTIFICA que la cuenta bancaria anteriormente señalada figura abierta al NIF y nombre de la persona física o jurídica interesada que figura en el apartado "SOLICITANTE", y que dicha persona interesada figura como titular de la cuenta.</p>	<p><b>Hirugarren interesdunaren sinadura edota entitatearen zigilua ■</b></p> <p>Firma de la persona interesada y/o sello de la entidad interesada</p> <p>.....(e)ko.....aren.....(e)an</p> <p>En....., a..... de..... de.....</p> <p><b>ADIERAZI BI AUKERETAKO BAT:</b></p> <p><input type="checkbox"/> Alta eskatzen da Arabako Foru Aldundiaren hirugarren moduan, ESKAERA HONI IFZ-REN FOTOKOPIA ERANTSITA</p> <p><input type="checkbox"/> Bankuko datuak eguneratzea eskatzen da, dagoeneko altan egonik Arabako Foru aldundiaren hirugarren moduan</p> <p><b>INDICAR UNA DE LAS DOS OPCIONES:</b></p> <p><input type="checkbox"/> Se solicita el alta como Tercero de la Diputación Foral de Álava, para lo cual <b>SE ADJUNTA FOTOCOPIA DEL NIF A LA PRESENTE SOLICITUD</b></p> <p><input type="checkbox"/> Se solicita la puesta al día de los datos bancarios como Tercero de la Diputación Foral de Álava ya dado de alta.</p>

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p><b>Laguntza-eskaera, Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko Enklabeko historia- eta arte-ondasunak zaintzeko eta/edo zaharbertitzeko esku-hartzeak finantzatzeko</b></p>
	<p><b>2020</b></p>
	<p>Solicitud de ayudas para la financiación de intervenciones de conservación y/o restauración de Bienes Histórico-Artísticos del Territorio Histórico de Álava y Enclave de Treviño</p>
	<p>Kultura eta Kirol Saila      Departamento de Cultura y Deporte</p>

### HISTORIA ETA ARTE ONDASUNAREN KOKAPENA ETA ESKU HARTZEAREN AZALPENA LOCALIZACIÓN DEL BIEN HISTÓRICO-ARTÍSTICO Y DESCRIPCIÓN DE LA INTERVENCIÓN

Ondasunaren izena ■ Denominación del bien

E-Referencia Catastral ■ Referencia catastral

Udalerría Municipio	Poligonoa Polígono	Etxadia Manzana	Lurzatia Parcela	Azpilurzatia Subparcela	Eraikina Edificio	UF UF
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>

Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)

Zk. ■ Núm.

Letra

Eskra. ■ Escal.

Solairua ■ Piso

Aldea ■ Mano

Probintzia ■ Provincia

Udalerría ■ Municipio


Herria ■ Localidad

P. K. ■ C. P.

Ekintza esku hartzearen azalpena ■ Descripción de la intervención

### HISTORIA ETA ARTE ONDASUNAREN KATALOGAZIOA ■ CATALOGACIÓN DEL BIEN HISTÓRICO-ARTÍSTICO

<input type="checkbox"/>	Babesa udal mailan ■ Protección de nivel municipal		
<input type="checkbox"/>	Euskal Kultura Ondarearen Zentroak proposatuta Monumentu edo Monumento Multzo izateko Propuesto para Monumento ó Conjunto Monumental por el Centro del Patrimonio Cultural Vasco		
<input type="checkbox"/>	Ondasun Kultural Kalifikatua ■ Bien Cultural Calificado	EHAAREN zk. ■ N° del B.O.P.V.	EHAAREN eguna ■ Fecha del B.O.P.V.
<input type="checkbox"/>	Ondasun Kultural Inbentariatua ■ Bien Cultural Inventariado	EHAAREN zk. ■ N° del B.O.P.V.	EHAAREN eguna ■ Fecha del B.O.P.V.
<input type="checkbox"/>	Beste batzuk (Inbentarioak, Katalogoak, ...) ■ Otros (Inventarios, Catálogos, ...)		

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p><b>Laguntza-eskaera, Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko Enklabeko historia- eta arte-ondasunak zaintzeko eta/edo zaharberritzeko esku-hartzeak finantzatzeko</b></p> <p><b>2020</b></p> <p>Solicitud de ayudas para la financiación de intervenciones de conservación y/o restauración de Bienes Histórico-Artísticos del Territorio Histórico de Álava y Enclave de Treviño</p>
	<p>Kultura eta Kirol Saila      Departamento de Cultura y Deporte</p>

**GASTUEN ETA DIRU-SARRERA NAGUSIEN BANAKETA:**  
**DISTRIBUCIÓN DE LOS GASTOS E INGRESOS PRINCIPALES:**

Gastuen eta diru-sarrera nagusien banaketa hau izango da: ■ La distribución de los gastos e ingresos principales son los siguientes:

**GASTUAK-ESKU HARTZEAREN KOSTUAK**  
**GASTOS-COSTE DE LA INTERVENCIÓN**

Azterlan osagarriak Estudios complementarios	€
Esku hartzeko proiektu teknikoa Proyecto técnico de intervención	€
Segurtasun eta osasun koordinazioa Coordinación de Seguridad y Salud	€
Azkeneko memoria Memoria final	€
	€
<b>GASTUAK GUZTIRA (*)</b> TOTAL GASTOS	€
<b>Kontzeptu guztietan BEZa barne hartzen da</b> (Todos los conceptos incluyen el IVA)	


**SARRERAK-ESKU HARTZEAREN FINANTZAKETA**  
**INGRESOS-FINANCIACIÓN DE LA INTERVENCIÓN**

Bere baliabideak (Guztiratik 20% gutxienez) Recursos propios (mínimo 20% sobre el total)	€
Maileguak Préstamos	€
AFAko beste sailen diru-laguntzak (sailen arteko erabakia) Subvenciones de otros Departamentos de la DFA (Acuerdo interdepartamental)	€
Bestelako dirulaguntzak edo laguntzak Otras subvenciones o ayudas	€
Eskatutako dirulaguntza Subvención solicitada	€
<b>SARRERAK GUZTIRA (*)</b> TOTAL INGRESOS	€
<b>(*) Guztizko biak berdinak izan behar dira</b> (* Ambos totales tienen que ser iguales)	

Berariaz baimena ematen dut nire datu pertsonalak Arabako Foru Aldundiak (AFA) trata ditzan, baldin eta dirulaguntza hau kudeatzeko helburuz bada. ■ Manifiesto mi consentimiento expreso para que Diputación Foral de Álava (DFA) trate mis datos personales para la finalidad de gestionar esta subvención.

(Tokia eta data ■ Lugar y fecha)

Eskatzailearen/Ordezkairearen sinadura eta zigilua ■ Firma de la persona solicitante/representante y sello



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava  
www.araba.eus

**Laguntza-eskaera, Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko Enklabeeko historia- eta arte-ondasunak zaintzeko eta/edo zaharberritzeko esku-hartzeak finantzatzeko**

**2020**

Solicitud de ayudas para la financiación de intervenciones de conservación y/o restauración de Bienes Histórico-Artísticos del Territorio Histórico de Álava y Enclave de Treviño

Kultura eta Kirol Saila

Departamento de Cultura y Deporte

Oharra (1)	Nota (1)
<p>Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak xedatutakoari jarraituz, jakinarazten dizugu eman dizkiguzun datuak Arabako Foru Aldundiaren titulartasuneko <b>Zaharberritzea</b> izeneko fitxategian sartuko direla. Datu horien tratamendua Arabako Foru Aldundiak zerbitzuaren programen berri zabaltzeko egiten da.</p> <p>Bermatzen dugu datuak isilpean gordeko direla, eta ez zaitzkiela jakinaraziko beste batzuei, legez ezarritako kasuez kanpo.</p> <p>Aukeran izango duzu datuetan sartu, haiek zuzendu, ezereztu, haien aurka egin eta tratamendua mugatzeko eskubideak erabiltzea, DBEOk aitortzen dituenak, eta, horretarako, Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren bulegora jo beharko duzu (Probintzia plaza, 5, 01001 PK, Gasteiz -Araba).</p> <p>Argibide gehiago: <a href="http://www.araba.eus/web/LegezkoOharHedatua">http://www.araba.eus/web/LegezkoOharHedatua</a></p>	<p>Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 (RGPD), le informamos que los datos que usted nos facilita van a ser incluidos en el Fichero denominado <i>Restauración</i> titularidad de Diputación Foral de Álava cuyos tratamientos se realizan para la difusión de los programas del Servicio.</p> <p>Garantizamos la confidencialidad de sus datos, no siendo comunicados a terceras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente.</p> <p>Usted podrá ejercitar sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición y limitación que reconoce el RGPD dirigiéndose a la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava, Plaza de la Provincia, 5, CP 01001 Vitoria - Gasteiz (Álava).</p> <p>Para más información: <a href="http://www.araba.eus/web/AvisoLegalAmpliado">http://www.araba.eus/web/AvisoLegalAmpliado</a></p>
<p><b>Oharra (2)</b></p> <p>Nahi baduzu administrazioak bide telematikoz bidal diezazkizun jakinarazpenak, alta eman beharko duzu Jakinarazpen Telematikoen Zerbitzuan eta, administrazioarekin harremanetan jartzeko, posta elektronikoko bakarraren helbidea (EBH) lortu. Ondoren, zerbitzu horrek gaituta dituen prozeduretan harpidedun egin ahal izango zara. Jakinarazpenak bide telematikoz jasotzeari utzi nahi izanez gero, nahikoa izango duzu dagokion prozeduran baja ematea.</p>	<p><b>Nota (2)</b></p> <p>Si quiere que la Administración le remita las notificaciones por vía telemática, deberá darse de alta en el Servicio de Notificaciones Telemáticas y obtener una dirección de correo electrónico única (DEU) con la que comunicarse con la Administración, suscribiéndose, posteriormente, a los procedimientos que tengan habilitado este servicio, podrá dejar de recibir las notificaciones de forma telemática al dar de baja la suscripción al procedimiento correspondiente</p>
<p><b>Oharra (3)</b></p> <p>Zuk emandako banku datuak hirugarrenen eta interesdunen fitxategian erregistratuko dira, zeina Administrazio honen titularitatekoa baita, aurrekontu gauzatzeari eta aurrekontuz kanpoko gauzatzeari dagozkion eragiketen izapideak egiteko. Atal honetan emandako datuak ez dira tratatuko edo komunikatuko, baldin eta lehenago egindako ordainketen ondorioz, dagoeneko alta eman bazaie identifikazio eta banku datuei, berriro ere kobratzea hautatzeko eman direnei</p>	<p><b>Nota (3)</b></p> <p>Los datos bancarios facilitados por usted se registrarán en el Fichero de Terceros e interesados titularidad de esta Administración para realizar la tramitación de operaciones de ejecución presupuestaria y extrapresupuestaria. No se tratarán ni comunicarán los datos cumplimentados en este apartado si como consecuencia de pagos realizados con anterioridad, ya estuvieran dados de alta los datos identificativos y bancarios por los que de nuevo se optara para el cobro.</p>
<p><b>Oharra (4)</b></p> <p>Berdintasunaren arloko araudia betez, honako hau <b>ADIERAZTEN DUT</b></p>	<p><b>Nota (4)</b></p> <p>En cumplimiento de la normativa en materia de Igualdad <b>DECLARO:</b></p>
<p><b>LEHENENGOA.</b></p> <p>Ez ordezkatzin dudana elkarte edo erakundeak, ez elkarte edo erakunde horretako gobernu edo administrazio organoetako ezein kidek ez duela sexua dela eta inor bazterten, ez zuzenean ez zeharka, onarpen prozesuetan edo funtzionamenduan, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, 24.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.</p>	<p><b>PRIMERO.</b></p> <p>Que ni la asociación u organización a la que represento, ni persona alguna de las que forman parte de sus órganos de gobierno o administración, realizan actos de discriminación directa y/o indirecta por razón de sexo en los procesos de admisión o en el funcionamiento de conformidad con lo estipulado en el artículo 24.2 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.</p>
<p><b>BIGARRENA.</b></p> <p>Ez ordezkatzin dudana elkarte edo erakundeak, ez elkarte edo erakunde horretako gobernu edo administrazio organoetako ezein kidek ez duela zigorrik izan, ez arlo penalean ez administrazioan, sexua dela eta inor bazterteagatik, eta/edo emakumeen eta gizonen berdintasun arloan xedatutakoak urratzeagatik, abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuak, lan arloko arau hausteei eta zehapenei buruzko legearen testu bateratua onartzen duenak, ezarritakoaren arabera.</p>	<p><b>SEGUNDO .</b></p> <p>Que ni la asociación u organización a la que represento, ni persona alguna de las que forman parte de sus órganos de gobierno o administración, han sido sancionadas penal y/o administrativamente por discriminación por razón de sexo y/o por infracciones en materia de igualdad entre mujeres y hombres derivadas del Texto Refundido de la Ley de Infracciones y Sanciones en el Orden Social, aprobado por Real Decreto Legislativo 5/2000, de 4 de agosto.</p>